

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Noeren dinosauroak



Ezkerrean, Noeren arka, Monrealeko (Italia) bizantziar elizako mosaiko baten arabera. Eskuinean, dinosauro espezie baten irudia. Gaur egun bada Noek bere ontzian dinosauroak eraman zituela uste duenik, Damian Thompsonek *Counterknowledge* liburuan dioenez (azpian, liburuaren azala).

AMERIKA, K.A. 600. URTEA. Israeldarrak Amerikara iritsi ziren. Berehala bi klanetan zatitu ziren, baina Jesukristok bisita egin zienean batu egin ziren. Jesusek alde egin zuenean, berriro zatiketa iritsi zen. Edo halaxe zioen behintzat Joseph Smithek *Mormoiaren liburua* (1820) izenburuko lanean.



Eta ez pentsa halako astakeria historikoak iraganeko kontuak direnik. Damian Thompson kazetari estatubatuarrek azken urteetako sinakerien bilduma osatu du *Counterknowledge* (2008) liburuan –gaztelarazko itzulpena berriki argitaratu da *Los nuevos charlatanes* izenburupean—. Lan horretan, besteak, egileak Sasi Historia (*Fake History*) deritzonaren harribitxiak bildu ditu.

Zerrenda horren izar nagusietakoa Noe da. Answers in Genesis, AEBetan azkar hazten ari den muturreko elkarte kreazionistaren arabera, dinosauroak duela gutxi arte bizi izan ziren gure planetan. Baina nola lortu zuen Noek animalia itzel horiek arkan sartzea? Hona elkarteko bozeramaileetako baten erantzun soila: “Dinosauro gazteak besterik ez zituen ontziratu”. TheStoneAge.org webguneak dioenez, Harri Aroa ez zen

existitu, eta adi bertan irakur daitekeen esaldi honi: “Noek ontziak eraikitze teknika ezagutzen zuen, Koranari esker baitakigu haren arka lurrunari esker zebilela”. Lehen lurrun-makina 1606an patentatu zen.

Lawrence Gardner-ek –beste inork ez– bere burua Estuardo Errege Etxearen historiografo ofizial izendatu

du. Haren esanetan, sumeriarrak Irlandara iritsi ziren. Hauxe teoria horren oinarri sendoa: “Irlandan dragoiari *sumaire* esaten diote”.

Egitoko piramideak, Stonhenge eta Rapa Nuiko estatuak bidaiari estralurtarrek eraiki zituzten. Teoria hori Erich von Däniken suitzarrak zabaldu zuen *Etorkizuneko oroitzapenak* (1968) ez-fikziozko liburuan. Hamar milioi ale saldu zituen.


Aldiz, *Jainkoen aztarnak* (1995) liburuak bost milioi saldu zituen. Graham Hancock *The Economist*-eko korrespondentsal ohiak Esfingea K.a. 5000. urtean eraiki zutela dio: “Izotz Aroan hedatu zen eta adimen berezia zuen herri ezezagun batek eraiki zuen”.

Teoria hauek guztiek irribarrea eragingo ligukete, gehienek milioika jarraitzaile izango ez balituzte. ■

## Arrastoak

### Eskultura klasikoak Bilbon

BILBOTIK irten gabe, besteak beste, Venus Milokoa, Delfoseko Auriga eta Victoria Samotraziakoa, alegia, eskultura klasiko garrantzitsuenak batera ikustea ezinezkoa dela uste dutenek, Mariaren Bihotza elizara joatea besterik ez dute, bertan baitago Bilboko Erreproduzioen Museoa. 1922an Manuel Ramirez Escuderok sustatutako proiektu honi esker, eskultura klasikoaren erreproduzioak ikus daitezke, eta aditua izan behar da kopiak originaletatik bereizteko. Eskulturak erakustez gain, museoak erreplikak egiteko prozesua ere azaltzen du. Horrez gain, bildumazaletasunari buruzko edukiak, tailerrak eta beste-lako jarduerak ere eskaintzen dituzte.



Venus Milokoaren originala Pariseko Louvren dago, baina Bilbon erreplika fidela ikus daiteke.